

## **2015EKO UZTAILAREN 7AN UDALBATZAK EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.-**

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### **ZINEGOTZIAK:**

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Kanpezuko Udalerrian, bi mila eta hamabosteko uztailaren zazpian izanda, arratsaldeko zazpiak eta zortzi zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate-Lehendakari andrearen lehendakaritzapean; azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 38. artikuluan zehaztutakoa betetzea helburuarekin, non zehaztzen den bilkura osagarriaren ondorengo hogeita hamar egunetan, Alkateak ezohiko Osoko Bilkura edo Bilkurak deituko dituela Udalbatza berriaren funtzionamendua ezartzeko.

Lehendakariak bilkura ireki du, hurrengo gai-ordenarekin:

### **GAIAK**

#### **LEHENA. TALDE POLITIKOEN OSAKETA ETA HAIEN BOZERAMAILEAK**

Alkateak legegintzaldi honetan udalaren funtzionamenduri buruzko azalpenak eman eta gero, azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 24. artikuluan zehaztutakoarekin bat talde politikoek aurkeztu dituzten idatzien berri ematen da.

Udalbatzak jakinaren ganean geratu da, hurrengo udal talde politikoak eratuz, dagozkien bozeramaileekin:

-KAIXO udal talde politikoa

Bozeramailea: Manuel Muñoz Morentin jn.

-EAJ-PNV udal talde politikoa

Bozeramailea: Maria Asun Quintana Uriarte and.

#### **BIGARRENA. OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA**

Alkatetzak proposatu du Udalbatzaren ohiko osoko bilkurak hileko lehen astearteetan egitea -jaieguna ez ba da- arratsaldeko zazpitan, abuztuan izan ezik, Udaletxeko Bilkura Aretoan.

Bozketa egin ondoren, bertaratutakoek gaia aho batez onartu dute.

## **HIRUGARRENA. INFORMAZIO BATZORDEAK ERATZEA, EGOKIA BADA**

Alkatetzak proposatu du ez eratzea Informazio-Batzorde Iraunkorrik -legeak xedatutakoari kalterik egin gabe-, horien ordeztalalde irekiak eratzea.

Bozketa egin ondoren, bertaratutakoek gaia aho batez onartu dute.

## **EZTABAIDA ETA PARTE-HARTZEA**

Saenz de Ugarte andreak galdetu du talde horiek Udal-arloko osatuko lituzketen.

Quintana andreak adierazi du legeak ezartzen dituela legearen arabera eratzeko Informazio-Batzordeak, aktak jasotzeko beharra ere bai.

Alkate andreak azaldu du lantaldeak irekita izando direla bai Zinegotzietan bai ideia edo informazioa emateko ekarpenak egin ditzaketen pertsonen.

Herrador jaunak galdetu du lantalde horien nork osatuko lukeen.

Ruiz de Loizaga jaunak esan du zerbait ekartzeko duten pertsonen irekita izango zirela.

Quintana andreak galdetu du horietan joratzeko diren gai guztiak Osoko Bilkuretara eramango diren.

Alkate andreak baietz esan du.

Garcia de Acilu jaunak adierazten du ondo iruditzen zaiola herritarrak bertan egotea; hala ere, zenbait gai edo informazio Udalbatzako kideek soilik ezagutu beharko zituztela irizten du, arduraz jokatu behar delako; zenbaitetan Zinegotzietan alde aurretik bilerak izan beharko zituzten, herritarren partehartzea baino lehen.

Alkateak adierazi du eskema hori jarraitu beharko luketela.

Garcia de Acilu jaunak Idazkaritzari gai horren legezotasunari buruzko txostena eskatu dio.

Quintana andreak esandako berretsi du, Informazio-Batzordeak eta lantalde irekiak bi gauza ezberdinak dira.

Muñoz jaunak esaten du Informazio-Batzorde horien herritarrak partehartzeko bidea izango litzatekeela; zeren haztapenera jo ezkerreko, gehiengo osoa izango litzateke.

Quintana andreak ados dago herritarren partehartze handiago batekin eta elkarlanean lan egitearekin; baina ardurekin Zinegotzi guztientzat, eta ez oraingoan gertatzen den bezala: haren taldeko lau Zinegotzietan ez dutela ardurarik hartzen.

Saenz de Ugarte andreak adierazten du lantalde irekiak eta Udal-arloak ez direla gauza bera.

Herrador jaunak galdetu du lantalde horien kideen kopurua irekia den.

Ruiz de Loizaga jaunak adierazi du bestela ez liratekeela izango ez irekiak ez eraginkorrak.

### **LAUGARRENA. BESTE ERAKUNDEETAN UDALBATZAKO ORDEZKARIEN IZENDATZEA**

Alkatetzak hurrengo erakundeetarako ordezkariak proposatu ditu:

- Izki: Muñoz eta Ruiz de Loizaga jaunak
- Kuadrilla: Sáenz eta Ruiz de Loizaga jaun-andreak, eta PNVko ordezkari bat; Herrador jauna.
- I.P.I. Mendialdea: Arenaza eta Muñoz jaun-andreak.
- Arabako Lanak: Ruiz de Loizaga eta Muñoz jaunak.
- Izkiko Parkea: Ruiz de Loizaga eta Arenaza jaun-andreak.
- Vital Kutxa: Muñoz eta Basterra jaunak
- Batzorde ekonomikoan: Muñoz eta Arenaza jaun-andreak.
- Haurreskola: Arenaza eta Muñoz jaun-andrak.
- Gurutze Gorria: Arenaza eta Sáenz andreak.
- Bizilagunen elkarte (loar eta Subida al castillo): Sáenz eta Arenaza andreak.

### **BOSGARRENA. UDALBATZAKO ZINEGOTZIEI BERARIAZKO DELEGARITZEN BERRI EMAN, EDO HALA BADA, LAN-ARLOENA.**

Alkate andreak hurrengo lan-arloak ezarri ditu ordezkaritza, erabaki eta sinadura ahalmenekin, Alkatetzak eskuordetza emanda, Alkatetzari era erresidualean egotsita.

- Hirigintza eta ingurumena: Ruiz de Loizaga jn.
- Gizartea (3.adina, osasuna, etxebizitza, haurrak, elkarbizitza eta hezkuntza): Arenaza and.
- Ekonomia eta enplegua (industria eta merkataritza): Muñoz jn.
- Kultura, kirola, euskara eta gazteria: Saenz and.

### **EZTABAIDA ETA PARTE-HARTZEA**

Herrador jaunak nabarmendu du beste lan egiteko era esan zietela; haren taldeari, ordea, ardurarik ez diote eman. Alkatetzari galdetu dio nola egongo ziren haiei hori egingo balie.

Alkate andreak berdin egongo zirela esan du.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du haren taldea beste talde politikoei Udal-arlok eskaini dizkiela azken 8 urteetan.

Muñoz jaunak Kaixok duen filosofiari errespetua eskatu du, eta hasteko lantalde horietan lan egin nahi dutela frogatu beharko dutela. Haiei bozkatu die herriak aldaketa hau nahi zutelako.

Saenz de Ugarte andreak adierazi du Udal-arlo baten bozeramailea izatea nahiko luke, eta talde politikoari esku emateren bat egingo zuela.

Herrador jaunak adierazi du herriaren alde elkarrekin lan egitea proposatzen zailea; eta, horren ordez, bilera bakarra egin dute ordubeteko iraupenarekin.

Muñoz jaunak guztiei pazientzia apur bat eskatu die, guztiak lurra hartzen ari direlako.

Quintana andreak galdetu du haren taldean funtzioen esku ematearen aukera proposatu den.

Muñoz jaunak azaldu du hautetsontzietan proposatu den aldaketa badagoela prozesu bat, lan egiteko batu nahi badute.

Garcia de Acilu jaunak erantzun du gai-ordenean agertzen dena ez dela proposamen horren isla.

Garcia de Acilu jaunak irakurri du PNV udal taldearen proposamena, haren kideek Udal-arloen ardurak hartzeko:

- Alkatetza: Garcia de Acilu eta Herrador jaunak
- Hirigintza eta ingurumena: Garcia de Acilu eta Saenz de Ugarte jaun-andreak
- Gizartea (3.adina, osasuna, etxebizitza, haurrak, elkarbizitza eta hezkuntza): Saenz de Ugarte eta Quintana andreak
- Ekonomia eta enplegua (industria eta merkataritza): Saenz de Ugarte eta Herrador jaun-andreak.
- Kultura, kirola, euskara eta gazteria: Quintana eta Herrador jaun-andreak.

#### **SEIGARRENA. ALKATEORDEEN IZENDATZEA.**

Alkatetza-Dekretua adieraztea non 2015ko uztailaren 7an, honela dioen Alkateordeen izendatzeari buruzko Erabakia hartu zen:

*“Ikusirik Udal hauteskundeak 2015eko maiatzaren 24an egin zirela, eta 2015eko ekainaren 13an Udalbatza berria eratu zela. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Udal Erregimenaren Oinarriari buruzkoak, bere 21.2 artikuluan, eta azaroaren 28ko 2568/1986an onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia, bere 46.1 artikuluan, horretarako aitortzen didaten ahalmena baliatuz*

*ERABAKIA HARTU DUT*

*LEHENENGOA.- Kanpezuko Udaleko alkateorde izendatzea ondorengo Zinegotzi hauek:*

*Lehenengo Alkateordea, Idoya Arenaza Sáenz del Burgo*

*Bigarren Alkateordea: Zuriñe Sáenz Sáenz*

*Hirugarren Alkateordea: Manuel Muñoz Morentin*

*Izendatutako Alkateordeei dagokie, esleitutako kargua onartu ondoren, Alkatearen zeregin guztietan hura ordezkatzeko ezarritako hurrenkeran, baldin eta ez badago, gaixorik badago edo haren eskumenak gauzatzea eragozten dion eragozpenik badu.*

*BIGARRENA.- Erabaki honen berri zendatutakoei zuzenean eman, tazituki onartutzat hartuko dena, kontrakoa esan ezean; eta izendapenaren Erabakia Arabako Aldizkari Ofizialera igortzea, baita Udaletxeko iragarki taulan argitara ematea esandako Erabakia. Alkateak sinatuko duen egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.*

*HIRUGARRENA. Udalbatzari Erabaki honen berri ematea egingo den lehenengo bilkuran”*

*Udalbatza jakinaren gainean geratu da.*

#### **ZAZPIGARRENA. ALKATE, ZINEGOTZI ETA TALDE-POLITIKOEI DIRU-ESLEIPENAK**

Alkate Andreak ondorengo diru-esleipenak proposatu ditu:

-Talde politikoei: 75€/hilean, gehi 25€ Zinegotzi bakoitzeko.

-Zinegotzi jaun-andreei:  
40€ ohiko osoko bilkura bakoitzeko

40€ egindako bilera bakoitzeko, hilean bat gehienez

-Alkate Andreari:

Udaletxera bertaratzeagatik 87,50€/egunean jasoko dituen kalte-ordaina, gehienez 700€ hilean.

Bozketara jarrita aho-batez onartu izan dira egindako proposamenak.

Garcia de Acilu jaunak Alkatezari diru-esleipena arduraldiaren zein portzentajeari dagokion galdetu du.

Muñoz jaunak erantzun du lehen bezala; Alkateak bi goiz erdi egongo da (lau orduz), laster Udaletxea arratsaldean irekitzeko asmoarekin.

Garcia de Aciluk erantzun du arduraldi laburra iruditzen zaiola.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabost minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

O. E.  
Alkate andrea,

Idazkaria,

Ibernalo Basterra Txasko

Miguel A. Oliveira Barral